



Amatxi-aitatxien solasik politena lehiaketa

Zein da zure amatxik aunitzetan erabiltzen duen **erranairua**? Noiz gelditu zinen zur eta lur, azkenekoz, aitatzik erabilitako **solas** batekin? Zure amatxi-aitatzien zein **hitz** ez duzu zuk inoiz erabiltzen?

Gure amatxi-aitatzien solasetako aunitz galbidean direla ikusirik, **hitz, erranera, erramolde** eta gisakoak biltzeko lehiaketa antolatu du Bor-bor Bortziritako euskaltzaleen mugimendua. Hauek dira parte-hartzeko

OINARRIAK

1. Helburua

Gure amatxi eta aitatziek erabili izan dituzten, eta galbidean diren solasak biltzea eta zabaltzea da lehiaketaren helburu nagusia. Parte-hartzaileek euren amatxi eta aitatziei aditutako hitzak, solasak, erranera, erramoldeak, atsotitzak... bildu eta zabalduko dituzte.

2. Parte-hartzaileak

Bortziritako edozein herritarrek parte-hartu ahal izanen du, bere adina edozein dela ere.

3. Parte-hartzeko modua

Hitza, erranera, erramoldea, edo dena delako solasa hiru moduz zabaldu ahal izanen da (gutierrez bat aukeratu beharko da):

- **Instagramen** eta **facebooken**: erranera, esaldi, hitz... bakoitzeko argitalpen bana bidaliko da. Argitalpenean (argazkia, bideoa edo bertzelako edozein irudi) solas hori irakurtzeko moduan egonen da. Testuan **#Solasikpolitena** traola paratu beharko da, eta **@borboreuskara** aipatu beharko da.
- **Formulario bidez**: **labur.eus/solasikpolitena** helbidera sartu, eta galdetegia bete. Erranera, esaldi edo hitz bakoitzeko galdetegiko laukitxo bat bete beharko da.

Partaide bakoitzak nahi hainbertze solas bidali ahal izanen ditu.

Traola, **@borboreuskara**-ri aipamena, edo puntu honetan aipatzen den bertze edozein kontu ez paratzea nahikoa izanen da sariketatik kanpo uzteko.

4. Zabaltzeko epea

Lehiaketarako balagarriak izateko, proposamenak **otsailaren 19tik martxoaren 7a** bitarte bidali beharko dira, izan sare sozialetan, izan formularioa betez. Epe horietatik kanpo bidalitako proposamenak ez dira kontuan hartuko.

5. Epaimahaia

Bor-Bor Bortziritako Euskaltzaleen Mugimenduaren Talde Eragileak izendatuko du sariketarako epaimahaia. Haren erabakia ezin izanen da gibelera bota. Oinarri hauen inguruan sor daitezkeen interpretazio desberdinak, edo zehaztasunak egitea epaimahaiaren esku geldituko da.

6. Saria

Irabazleak 23. Korrikan, Bor-bor-ek erosiko duen kilometroko **lekukoa eraman** ahal izanen du, eta **Korrikako petoa** ere opari izanen du. Irabazlearen izena martxoaren 17a baino lehenago emanen du jakitera epaimahaiak, irabazleari zuzenean jakinaraziz, eta ohiko bideetatik (Bor-borren Instagram eta Facebook kanalak, ttipi-ttapa, xorroxin eta **erran.eus**-en bidez...).